

Sarrera

Europar Batasunaren (EB) elikagaien segurtasunerako politikaren xedea da elikagaien inguruan bermatzea kontsumitzaileen osasuna eta interesak maila altuan babestuko direla. Horretarako, aniztasuna hartu behar da aintzat eta, neurri berean, barne merkatuaren funtzionamendu egokia bermatu.

2000. urtean elikagaien segurtasunari buruzko Liburu Zuria onetsi zen. Horren ondorioz, ikuspuntu berria txertatu zen EBko elikagaien segurtasunerako politikan, eta ikuspuntu horrek Europako lege-xedapen gehienak aldatzea eragin du. Gauzak horrela, EBk elikagaien segurtasun eta higiene arloko arau horizontal eta bertikal berri ugari onetsi ditu azken urteotan.

Orientazio aldaketa honek zuzenean eragiten du

abeltzaintzan, elikakatearen oinarrizko atala baita. Testuinguru berri horretan, abeltzaintzaren jarduera ez da soilik hartzen produktuak lortzeko eta animaliak gizentzeko lan multzotzat; elikagai enpresatzat ere hartzen da, horrek dakartzan betebeharrak eta eskubide guztiak.

178/2002 Araudiaren arabera, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrean ezarri beharko ziren trazabilitate-sistemak elikagai, pentsu, elikagaietarako animalia eta pentsuei edo elikagaiei gehitzen zaizkien substantzietarako. Ildo horretan, beharrezkoa izan da ahalegina egitea araudia hedatzeko, nekazariak edota abeltzainak kontzientziarazteko eta laguntzeko. Eta nahiz eta horrek merkaturatze-kateko beste kate-maila batzuetan erraza dirudien, arlo honetan ez da hain erraza izan. Gauzak horrela, horri esker, ezaugarri horiek dituen sistema eskuratu ahal izan dute nekazari edota abeltzainek eta euren ustategietan praktikan jarri ahal izan dute.

Bestalde, 852/2004 Araudiak xedatzen du derrigorrean egin eta

gorde behar dela arriskuak kontrolatzeko modu egokian eta epe egokian aplikatutako neurrien erregistroa, betiere enpresaren izaera eta tamaina kontuan izanik. Araudia 2006ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, eta horren arabera, animaliak hazten dituzten eta animalia jatorriko lehenengo produktuak ekoizten dituzten elikagai-enpresetako eragileek honako erregistro hauek izan beharko dituzte:

- animaliei ematen zaizkien elikagaien izaera eta jatorria.
- animaliei ematen zaizkien albaitaritza-botiken eta tratamenduen xehetasunak, noiz eman zaizkien eta itxarotendeborak.
- animalia jatorriko produktuen segurtasunean eragina izan dezaketen gaixotasunen agerraldia.
- animalien laginekin eta diagnostikatzeko diren beste lagin batzuekin egindako analisisen emaitzak, giza osasunerako garrantzitsuak direnak.
- animaliei edo animalia jatorriko produktuei egindako kontrolen txostenak.

Erregistroak mantentzeko, beste aditu batzuen laguntza jaso ahal izango dute elikagaien enpresetako eragileek, hala nola: albaitariak, agronomoak, nekazaritza arloko teknikariak.

Halaber, animalia jatorriko elikagaien berriazko higienebaldintzei buruzko 853/2004 Arauak irizpide orokorrak biltzen ditu, elikakatean zehar produktuak merkaturatzean egoki identifikatzeko.

Neurri berean, pentsuen higienebaldintzak ezartzen dituen 183/2005 Arauaren 1. eranskinean hauei egiten zaie erreferentzia: trazabilitatearekin (pentsuak) zerikusia duten erregistroetan praktika egokiak betetzea, albaitari botikak erabiltzea, landare-osasunerako produktuak erabiltzea, analisiak egitea, eta beste.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar beste araudi batzuek ere ezartzen dituztela trazabilitate-baldintzak (Ekoizpen Ekologikoa, Behi-haragi Ziurtatua...).

Ekimen horiek guztiek ezartzen dute beharrezkoa dela dokumentuak eta erregistroak

izatea nekazaritza ekoizpenean higiene eta erabilera printzipioak aplikatzen direla egiaztatzeko.

Zer da trazabilitatea

Erregistratutako informazioaren bidez, animalia, pentsu edota elikagai baten historikoa egiteko eta horien lehenengo helmuga ezagutzeko gaitasuna izatea da trazabilitatea.

Trazabilitatearen bidez, produktu bat ekoizteko edota animalia bat hazteko eman diren urrats guztiak ezagut ditzakegu; elikagai bakoitzaren nortasun agiria bezalakoxea da, alegia.

Ekoizpen faseetan trazabilitate-sistemak ezartzeak dakar paper gehiago betetzea edo kudeaketa handiagoa izan behar izatea. Eta, maiz, abeltzaintza sektoreko enpresaria ez dago ohituta oharrak hartzen: zer ekoitzi duen, nola, nori saldu dizkion produktuak edo ustiatzean hazi dituen animaliak.

Azken batean, trazabilitateari buruz hitz egiteko erabiltzen diren terminoak erabilia, honela ikusiko genuke trazabilitatea: atzerako trazabilitatea, hau da, hornitzaileak identifikatzea; barne trazabilitatea edo ekoizpen faseetan erregistro-sistemak

ezartzea; eta aurrerako trazabilitatea, nekazaritzako produktuen bezeroak eta helmuga identifikatzea.

Ildo horretan, artikulua honetan zehar aztertuko dugu nola heldu behar zaion trazabilitateari abere ustiatzean (elikakatearen lehen katea), eta Euskadiko abeltzainei nola eragingo dien.

Trazabilitatea abeltzaintzan

Abere ustiatzei dagokienez, honako hau da trazabilitate-sistema egokia izateko prozedura: ustiatzean sartzen diren lehengaien jatorriaren identifikazio-erregistroak izatea (paperean zein euskarri informatikoan), bai eta animalia edota produktuaren, eta horien helmugaren erregistroa ere.

Zenbait sektoretan urteak daramatzate sistema horiek ezartzen.

Behi-haragiari dagokionez, "behi eroen" gaixotasuna dela eta, 1760/2000 (CE) Araudia indarrean jarri zenetik aplikatzen da sistema hori. Sistema horrek ezartzen du hurrengo puntuek biltzen duten

identifikatzeko eta erregistratzeko sistema:

- Animalien banakako identifikazioa (krotaloak).
- Identifikazio-agiriak.
- Abere ustiategi bakoitzean egindako banakako erregistroak; erakunde eskudunei jaio eta hil diren animaliei buruz egindako jakinarazpenak; ustiategian sartu eta irten diren animalien erregistroa.
- Informatizatutako datu-baseak - SIMOGAN-.

Esneri dagokionez, 1728/2007 Errege Dekretuak aldarazi zuen 217/2004 Errege Dekretua, Esnegintzan esku hartzen duten Eragileen, Establezimenduen eta Edukiontzien identifikazio eta erregistroari, eta esne mugimenduen erregistroari buruzkoa, zeinak xedatzen duen esnearen trazabilitate-sistemak praktikan jarri behar direla. Horiek abian jartzeko honako hauek gauzatu behar dira: behi-esnea ekoiztearekin, biltzearekin, garraiatzearekin, biltegiratzearekin eta tratatzearekin zerikusia duten eragile guztiak eta establezimenduak, eta esne

edukiontziak identifikatu eta erregistratu egin behar direla.

Badira produktuak edota erregistro-sistemak identifikatzeko irizpideak biltzen dituzten beste araudi batzuk, besteak beste, Hegaztien Osasun Plana. Plan horren arabera, hegazti multzoen datuak bildu behar dira (ustiategian noiz sartu diren, jatorria), bai eta ekoizpen-sistemari eta animalien osasun egoerari buruzko datuak ere (pentsuak, analisisien emaitzak...)

Horiez gain, badira Jatorrizko izendapen Babestuari, Babestutako Adierazpen Geografikoei eta Bermatutako Espezialitate Tradizionalei buruzko araudiak, nekazaritza arloko elikagaiak sustatzeko eta babesteko. Produktu ekologikoei dagokienez, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari buruzko araudiak behi-haragiari buruzko araudiaren antzeko irizpideak ezartzen ditu.

Horrela, eta orientazio moduan, amaitzeko esan dezakegu trazabilitate-sistema ezartzeko beharrezkoa litzatekeela honako erregistro hauek era egokian betetzea:

- **Sarrereren (jatorria adierazi behar da) eta irteeren (norakoa adierazi behar da) erregistro-liburua.** Agiri bera erabil daiteke animalien identifikazioa (banakakoa edo lotekakoa) erregistratzeko. Animalien identifikazio-agiriak gorde egin behar dira.

- **Produktuen (arrautzak, esnea...) identifikazio eta helburuen erregistro-liburua.** Garrantzitsua da, halaber, garraioidea identifikatzea.

- **Albaitari tratamenduen erregistro-liburua. Trataturako animaliak eta erabilitako produktua identifikatu egin behar dira.** Errezetak gorde egin behar dira.

- **Pentsuen sarrereren erregistro-liburua. Pentsuen jatorria eta erabilera zehaztu egin behar dira.** Albaranak gorde egin behar dira.

- **Egindako analisien emaitzak (ura, animaliak, produktuak, pentsuak...).**

Ondorioak

□ Trazabilitateak ustiategietan lan egiteko modua aldatzea dakar, hau da, zer egin den adierazi eta erregistratu egin behar da.

□ Ez dago metodo zehatzik trazabilitateari buruzko betebeharrak derrigorrean betearazteko. Eta, nahiz eta betebeharrak horiek betetze aldera baldintzei heltzeko moduak proposatzen diren, beharrezkoa da trazabilitatea egokitzea aplikatu behar den ustiategiaren izaeraren eta tamainaren arabera.